

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetakoz auzokako errenta pertsonal altuenak Abandon, Miramon-Zorroaga eta Mendizorrotza daude

Miramon-Zorroaga izeneko auzo donostiarra da, 72.280 €-rekin, familiakoz batez besteko errenta altuena duen auzoa hiru euskal hiriburuak artean

Abando, Bilbon, Miramon-Zorroaga, Donostian, eta Mendizorrotza, Gasteizen, dira hiru euskal hiriburuak batez besteko errenta pertsonal altueneko auzoak 2006. urtean. Aldiz, Iturrigorri-Peñascalek, Bilbon, Altza, Donostian, eta Abetxuko, Gasteizen, dira batez besteko errenta pertsonal baxuena erregistratzen duten kokalekuak hiru hiriburuak eta 18 urte edo gehiagoko biztanleentzat. Datuak Eustatek, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin elkarlanean, landutako Errenta Pertsonalaren eta Familiako Errentaren estatistikak eman du.


Abandoko biztanleriak, Bilbon, 31.537 euroko batez besteko errenta pertsonala du urteko; kopuru hori 69.670 eurora iristen da familiaren errentaren kasuan. Bestalde, Mendizorrotza auzoan bizi diren pertsonak, Gasteizen, 29.902 euroko batez besteko errenta pertsonala dute urteko, eta 69.777 euroko familia errenta batez beste. Miramon-Zorroagan bizi diren biztanleek, Donostian, 27.238 euroko batez besteko errenta pertsonala eskuratzen dute, eta 72.280 eurokoa familiaren batez besteko errentaren kasuan.

Hiriburu gipuzkoarrak ageri du oreka handiena auzoen artean; aldiz, Bilbon daude batez besteko errenta pertsonal handieneko eta txikieneko auzoak hiru hiriburuak artean

Hiriburu berdin bateko auzoen arteko aldea bereziki garrantzitsua da hiriburu bizkaitarraren kasuan. Gauzak horrela, Iturrigorri-Peñascalek, Bilbon, 9.210 euroko errenta pertsonala du batez beste; horrek esan nahi du Abandon erregistratzen denaren heren bat baino gutxiago duela. Gainera, batez besteko familia errenta auzo horretan 20.048 eurokoa da, Abandon eskuratutako batez besteko errenta pertsonala baino baxuagoa eta guzti.

Beste bi euskal hiriburuak, aldea, garrantzitsua bada ere, ez da hain nabarmena. Abetxukok, Gasteizen, 13.325 euroko errenta pertsonala du batez beste eta familiako errenta batez beste 28.073 eurokoa da. Bi kasuetan Mendizorrotzako erdiaren azpitik kokatzen den portzentajea da. Altzan, Donostian kokatzen den auzoa, batez besteko errenta pertsonala 13.633 eurokoa da eta batez besteko familia errenta, berriz, 30.775 eurokoa. Miramon-Zorroagarekin duen aldea, hiriburu gipuzkoarrean errenta pertsonal handiena duen auzoa, erdia izatearena da zehazki. Ondorioz, tarte adierazgarriena Bilbon ageri da.

Hiriburu bizkaitarrean, dauden 38 auzoetatik 11k udalerriaren batez besteko errenta gainditzen du, hain zuzen ere 18.196 euroan zenbatetsi dena. Gasteizek 28 auzo ditu eta horietatik hamaika 17.577 euroan kokatzen den udalerriko batez besteko errentaren gainetik kokatzen dira. Hiriburu gipuzkoarra ageri da berriro ere orekatuena bezala, izan ere, 17 auzoetatik 10ek gainditzen dute 20.056 euroan kokatzen den udalerriko batez besteko errenta pertsonala.



Iturria: EUSTAT. Errenta Pertsonala eta Familia Errenta (EPFE)

Errenta pertsonal osoak errenta iturri nagusien arabera hiru lurralde historikoetan portzentajeen aldetik duen banaketari dagokionez, lana da pisu erlatibo handiena duena. Atzetik transferentziak ditu (pentsioak eta gizarte prestazioak).

Zentzu horretan, Errenta Pertsonalari eta Familia Errentari buruzko Estatistikak zera ematen du argitara: hiru euskal hiriburuetan, errenta pertsonal eta familiako errenta altuenak ageri dituzten auzoetan lanetik etorritako errenten eragina txikiagoa da eta, aldiz, altuagoa da kapitaleko errentei dagokien hori. Horrela, adibidez, datu garrantzitsuen bezala ageri da Abando eta Indautxu auzo bilbotarren kasua. Horietan laneko errentak errenta osoaren % 50 eskas hartzen dute; aldiz, kapitaleko errentek % 27ko eragina dute.

Aldiz, batez besteko errenta pertsonal baxuenak erregistratzen dituzten auzoetan txikiagoa da kapital errenten eragina. Kuota nagusia laneko errentetatik etorritakoa da kasu honetan.

Batez besteko errenta pertsonala Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan bizitokitzen duten auzoa gorabehera (Eurotan)

Bilbao	18.196	Donostia-San Sebastián	20.056	Vitoria-Gasteiz	17.597
Abando	31.537	Aiete	25.965	Abetxuko	13.325
Altamira	11.660	Ategorrieta-Ulía	21.873	Adurtza	14.358
Ametzola	19.621	Altza	13.633	Ali-Gobeo	16.982
Arabella	12.758	Amara Berri	20.769	Arana	13.609
Arangoiti	12.332	Antiguo	25.890	Aranbizkarra	15.672
Atxuri	12.966	Añorga	18.273	Arantzabela	15.998
Basurtu	19.825	Centro	23.404	Ariznabarra	18.479
Begoña	19.441	Intxaurrondo	16.345	Arriaga-Lakua	18.652
Bilbao la Vieja	10.328	Egia	16.606	Casco Viejo	14.041
Boluetá	13.137	Gros	20.521	Coronación	15.521
Casco Viejo	19.818	Ibaeta	24.255	Desamparados	19.686
Castañós	25.705	Igeldo	20.963	El Anglo	16.493
Ciudad Jardín	19.738	Loiola	15.432	El Pilar	14.526
Errekaldeberri	14.103	Martutene	14.960	Ensanche	25.550
Ibarrekolanda	18.673	Miracruz-Bidebieta	15.321	Gazalbide	18.905
Indautxu	29.992	Miramon-Zorroaga	27.238	Judimendi	14.950
Iralabarri	17.016	Zubieta	20.308	Lovaina	22.110
Iturralde	16.076			Mendizorrotza	29.902
Iturrigorri-Peñasal	9.210			San Cristóbal	15.044
La Peña	13.033			San Martín	22.245
La Ribera	12.836			Sansomendi	16.487
Larraskitu	12.675			Santa Lucia	16.485
Masustegi-Monte Caramelo	16.259			Santiago	16.986
Matiko	16.123			Txagorritxu	16.932
Olabeaga	13.144			Zaramaga	13.460
Otxarkoaga	9.959			Ekialdeko Landa Zona	20.814
San Adrián	18.265			Ipar-mendebaldeko lan	19.616
San Francisco	9.969			Hego-mendebaldeko lan	21.105
San Ignacio	16.406				
San Pedro de Deustu	20.616				
Santutxu	14.690				
Solokoetxe	16.080				
Txurdinaga	17.238				
Uretamendi	10.047				
Uribarri	14.441				
Zabala	14.209				
Zorrotza	13.027				
Zurbaran	16.992				

Iturria: EUSTAT. Errenta Pertsonala eta Familia Errenta (EPFE)

Argibide gehiago eskuratzeko:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Pilar Martínez Rollón

Tel.: +34-945-01 75 31 Faxe: +34-945-01 75 01.

Euskal AEko Errenta Pertsonalari eta Familia Errentari buruzko prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Errenta Pertsonalari eta Familia Errentari buruzko datu bankua